




URRERA

URTARRILA/ABENDUA
2020



KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA

12 HILABETE AURRERA EGITEN

URTARRILA

EUSKALITen 2020ko ESTRATEGIA: LABURPENA



2020an, EUSKALITek alderdi eta jarduera hauetan jarri zuen arreta:

- **INNOBIDEAK-KUDEABIDE** programan parte hartzea eta Eusko Jaurlaritzarekin, foru aldundiekin eta SPRIrekin elkarlanean jardutea, eta 2014tik Kudeabiden diharduten enpresei hobetzen laguntzea.
- **Enpresa traktoreen programaren** bitartez, horien eta beren hornitzaile-katearen mobilizazio-gaitasuna duten enpresen laguntza indartzea eta lortutako arrerapenak ikusaraztea.
- **Kanpo kontraste eta ebaluazio zerbitzuen**, zein Kudeaketa Aurreratuarekiko aintzatespenen eskemaren posizionamendua balioesten jarraitzea, eta, bide batez, ebaluazioaren kultura hedatzen.

OTSAILA

OSAKIDETZAKO DONOSTIALDEA ESI 2019KO QUALITY INNOVATION AWARD NAZIOARTEKO LEHIAKETAN SARITUA



OSAKIDETZAKO Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuak (ESI) otsailaren 5ean Tel Aviven izan zen QIA nazioarteko lehiaketako Osasun Sektoreko berrikuntzaren **Award saria** irabazi zuen (aintzatespen gorena). Gainera, 19 herrialdeetako beste erakunde batzuek ere jaso zuten aintzatespena: Israel, Suedia, Finlandia, Txina edo Espainia batik bat.

Arabako Errioxako OSI, Imatek Advanced Technologies, Somorrostroko Prestakuntza Zentroa, Bizgarri Elkarte, Blackbinder, Fresmak eta CAF euskal erakundeak ere finalista izan ziren nazioarteko fasean.

MARTXOA

SOMORROSTRO PRESTAKUNTZA ZENTROA ETA EUSKADIKO PARKE TEKNOLOGIKOEN SAREA GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUEN (GIH) TXERTATZEARI BURUZKO SARIA



Erakunde biak **EUSKALITen GIHak erakundeetan txertatzeari buruzko Praktika Onen Saria** irabazi zuten, eta Espainiako Bikaintasun Zentroek antolatutako **CEX 2020** Sarirako euskal hautagaiak izan

ziren.

Somorrostroko Prestakuntza Zentroak ere **Publikoaren Sari Berezia** jaso zuen, eta **Lauaxeta Ikastola, AZTI, UPV/EHU eta A&B Bioteknologiako Laborategiak** finalistak izan ziren.

EUSKALITeko Patronatuko kideek, Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako zuzendari **Leyre Madariagarekin batera**, osatutako epaimahai batek aukeratu zituen praktika irabazleak. Epaimahaiak estrategiarekiko koherentzia, kudeaketan integratzea eta aurkeztutako praktiken emaitzak eta eragina baloratu zituen.

Ekitaldiaren amaieran, **José Luis Díaz**, EUSKALITen presidentea, hainbat sektoretako erakundeen artean praktika onak partekatzearen garrantzia eta eskuzabaltasuna azpimarratu zuen.

MARTXOA/APIRILA

ETA PANDEMIA IRITSI ZEN ETA EUSKALITek LANEAN JARRAITU ZUEN



Euskadiko larrialdi sanitarioaren deklarazioa izan zela eta, eta koronabirusaren hedapena geldiarazten lagun-

tzeko, EUSKALITek telelanaren bidez aritu zen, eta beste erakunde askok bezala, bere burua berrasmatu behar izan zuen. Krisi-batzorde bat sortu genuen presidentziarekin koordinatuta, segurtasun eta osasun-planak garatu genituen, baita kontingentzia-planak eta hainbat agertoki diseinatu genituen ere, eta hainbat lankidetzaz garatu.

Gure jardura guztiak, sektore-programak eta lan-plataformak berri diseinatu genituen, eta apirilean abian jarri genituen: **ekitaldiak, prestakuntza-jarduerak, zein diagnostiko eta ebaluazio ekintzak, guztiak % 100 online.**

MAIATZA

KUDEAKETA MARKO EZBERDINEN ESTRATEGIA



EUSKALITen **Markoak sortzeko estrategia bat bultzatzen ari gara, Kudeaketa Aurreratuaren Ereduarekin lerrokatuta**, erakundeek kudeaketaren hainbat esparru eta kontzeptutan gehiago sakontzeko aukera izan dezaten.

EUSKALITek **Kudeaketa Aurreratuaren Eredua (KAE)** garatu zuen 2014an, kudeaketa hobetu nahi duten erakundeentzako erreferentziatzeko tresna gisa. Honek, oso zeregin garrantzitsua du erakunde baten kudeaketa globalari buruzko hausnarketa egituratua egiten laguntzean. Baina jakin badakigu erakundeek lehen-tasun desberdinak dituztela, unearren, izaeraren, edo garapen-mailaren arabera, eta haien erabakia izan daiteke kudeaketaren elementu batzuetan beste batzuetan baino gehiago foku zehatza jartzea, horiek aztertu eta sakonago hausnartzeko.

Garatzen ditugun heinean, marko horiek EUSKALITen **Bilatu eta kudeatu erremintan** eskuragarri daude.

EKAINA

BEZEROEKIKO HARREMANAK HOBETZEARI BURUZKO JARDUNALDIA




EUSKALITeko **Kudeaketa Aurreratuaren Klube-**ko talde aurreratuen sektorearteko topaketa egin

genuen online formatuan. Jardunaldian landu zen gaia bezeroekiko harremana izan zen, eta, horretarako, Germán Gómez Santa Cruz izan zen gurekin, **Bezeroekiko harremana hobetzeko Gida** garatzen lagundu diguna, bai eta **Mutualiaren eta Osakidetzako Ezkerraldea Enkarterri Gurutzeta ESlaren** esperientzia eta jardunbide egokiak ere.

Talde horien helburua da kudeaketa-jardunbide egokiak, dokumentazioak edo adierazleak partekatzea, eta Kudeaketa Aurreratuaren Euskal Sarian aintzatespenen bat lortu duten sektore guztietako erakundeek osatzen dituzte.

UZTAILA

BENCHMARKINGA SUEDIARAKO KALITATERAKO INSTITUTUAREKIN (SIQ)



EUSKALITek **Suediarako Kalitaterako Institutuari (SIQ)** Kudeaketa Aurreratuaren Eredua eta kanpo-contraste zerbitzua aurkeztu zizkion. Bileran, EUSKALITeko zuzendari Fernando Sierra, Mats Deleryd, SIQeko presidentea, eta Mikael Lindström, ebaluazioen arduraduna egon ziren.

SIQek interes handia erakutsi du Suediarako enpresei, bereziki enpresa txiki eta ertainei, kudeaketan aurrera egiteko ematen dien kontrastearen antzeko zerbitzu bat garatzeko.

IRAILA

EUSKALITEK ETA ARIZMENDIARRIETA FUNDAZIOAK ENPRESAREN PARTAIDETZA EREDU INKLUSIBOA GARATU DUTE



EUSKALITeko eta Arizmendiarrrieta Fundazioko presidenteak, José Luis Díaz eta Juan Manuel Sinde hurrenez hurren, **lankidetz**a-hitzar-

men bat sinatu zuten enpresaren eredu inklusibo parte-hartzailea (MIPE) batera garatzeko. Akordio horren helburu komuna “Euskal enpresen kudeaketa eraginkorragoa eta gizatiarragoa modu koordinatuan bultzatzea da, bereziki parte-hartzearen arloa nabarmenduz”.

Eredu honek erakundeen kudeaketa indartu nahi du bizi ditugun ziurgabetasun eta krisi-uneetan, eta EUSKALITek sustatzen duen Kudeaketa Aurreratuaren Eredua (KAE) osatuko du, enpresan parte hartzeko modu guztietan arreta berezia jarritz.

Epe laburrean, kudeaketaren jardunbide egokiak identifikatzea eta MIPEren proposamenetarako adierazle egokiak definitzea izango da lanaren ardatza.

URRIA

KUDEAKETA AURRERATUAREN KONGRESUA. KRISI GARAIA, AUKEREN GARAIA



1.200 pertsonak baino gehiagok parte hartu zuten modu birtualean EUSKALITek urriaren 20an eta 21ean antolatutako **Kudeaketa Aurreratuaren Biltzarrean**. 40 pertsonak, beste hainbeste erakunderen ordezkari gisa, jardunbide egokiak eta ikaskuntzak, kasuak eta kudeaketari buruzko hausnarketak partekatu zituzten ziurgabetasun handieneko garaietan.


Kongresu hau **26. Kudeaketa Aurreratuaren Euro-par Astearen ospakizun nagusia izan zen**, urtero, kudeaketa-jardunbide onenei buruzko begirada sakona eskaintzen duena, eta 30 ekitaldi baino gehiago izan zituen, gehienak online formatuan.

Aurtengo edizioan garrantzi handia izan zuen, covid-19ren pandemia erakundeen egunerokotasunean izaten ari den eragina. Hori dela eta, lau gai-multzo nagusi landu ziren:

- Krisiaren kudeaketa, aukera gisa eta jardunbide egoki bidez
- Kudeaketa markoak, hausnarketari eta ekintzari laguntzeko
- Kontzilio-neurriak eta telelana, jardunbide egokiak eta enpleguaren etorkizunaren gakoak
- Gizarte Erantzukizuna eta Garapen Iraunkorreko Helburuak

Gai-multzo bakoitza gure Youtubeko kanalean ikusgai daude.

OSAKIDETZAKO BILBAO BASURTO ESI KUDEAKETA LABURREAN SARIAREN IRABAZLEA



Osakidetzako Bilbao Basurto ESlak, "Balioen aitorza eta indartzea: pandemiari aurre egiteko txer-

toa" lanarekin, EUSKALIT Mondragon Unibertsitatearen (MU) laguntzarekin koordinatzen duen **Kudeaketa Laburrean ekimenaren 4. edizioa irabazi zuen**.

Horrez gain, beste bi sari ere banatu ziren: **publikoarena, Axular Lizeoarentzat** izan zena, "Gure baloreak covid19ari aurre eginez" lanarekin, eta **Amateur obrarik onena, Ringspann Ibericarentzat** izan zena, "119" lanarekin. Gainerako **finalistak Mutualia, Forum Sport eta Ezkerraldea Enkarterri Gurutzeta ESlak** izan ziren.

Lan guztiak **Youtubeko gure kanalean** daude esku-argarri.

AZAROA

ZORTZI EUSKAL ERAKUNDEK 2020 QUALITY INNOVATION AWARD SARIAREN FINALISTA




Soraluce, eta Euskal Trenbide Sarea dira **Quality Innovation Award** sariaren euskal faseko irabazleak, eta Belgraden egingo den nazioarteko fasean lehiatuko dira.

Tokiko faserako **34 hautagaitza** ebaluatu zituzten EUSKALITen Kudeaketa Aurreratu Ebaluazio Klubeko pertsona-talde batek, eta UNIBASQ Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziak identifikatutako berrikuntzako adituek. Azkenik, EUSKALIT eta Innobasque Patronatuko ordezkariak osatutako epaimahaia euskal faseko irabazleak aukeratu zituen.

Advanced Services In MOBility (ASIMOB), Viuda de Sainz, Gogoa Mobility robots, Urkide Ikastetxea, ntClick Soluciones Tecnológicas, Alias Robotics,

MIKROENPRESAK ETA STARTUPAK	ntClick SOLUCIONES TECNOLÓGICAS S.L.
ETEak	ALIAS ROBOTICS, S.L.
ENPRESA HANDIA	SORALUCE S.COOP
BERRIKUNTZA SEKTORE PUBLIKOAN	EUSKAL TRENBIDE SAREA-RED FERROVIARIA VASCA
BERRIKUNTZA HEZKUNTZA-SEKTOREAN	COLEGIO URKIDE IKASTETXEA S. COOP.
BERRIKUNTZA OSASUN-SEKTOREAN	GOGOIA MOBILITY ROBOTS S.L.
EKONOMIA ZIRKULARRA	VIUDA DE SAINZ, S.A.
BERRIKUNTZA POTENTZIALA	ADVANCED SERVICES IN MOBILITY S.L. (ASIMOB)

EUSKALITEK EUSKARALDIA 2020an PARTE HARTU ZUEN



EUSKALITek **Euskaraldiaren** bigarren edizioan parte hartu genuen, urrats berriak emanez, eta norbanakoen konpromisotik, taldeko konpromisoetara jauzi eginez, hizkuntza praktika berriak bultzatzeko eta gure Hizkuntza Politikari jarraiki aurrerapausoak ematen jarraitzeko.

Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan!

KUDEAKETA AURRERATUAREN EUSKAL SARIA 2020



19 erakunde jaso zituzten Eusko Jaurlaritzaren Kudeaketa Aurreratuaren sariak, kategoría ezberdinetan: **brontzea, zilarra, urrea eta Euskal Saria**, Euskadiren kudeaketari egindako aitorten gorena, **1.300**

2020an SARITUTAKO ERAKUNDEAK

INDUSTRIA

BRONTZEKO A

- LAULAGUN BEARINGS, S.L.
- PREOCA SERVICIOS MEDIOAMBIENTALES, S.L.
- EUN SISTEMAS, S.L. (EUN)

ZILARREZKO A

- CAF POWER & AUTOMATION
- RED DE PARQUES TECNOLÓGICOS EUSKADI
- INGTEAM POWER TECHNOLOGY S.A - UNIDAD DE NEGOCIO WIND ENERGY
- BAHÍA BIZKAIA GAS

URREZKO A

- DOMUSA CALEFACCIÓN S.COOP

GARRAIOAK

BRONTZEKO A

- Euskal Trenbide Sarea-Red Ferroviaria Vasca

HEZKUNTZA

ZILARREZKO A

- GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEA - FACULTAD DE CIENCIAS SOCIALES Y DE LA COMUNICACIÓN UPV/EHU
- CENTRO DE ENSEÑANZA SAN ROQUE, S.L

URREZKO A

- SANTA MARIA IKASTETXEA
- CENTRO FORMACIÓN SOMORROSTRO

KUDEAKETA AURRERATUARI EUSKAL SARIA ESTRATEGIAN

- COLEGIO URKIDE IKASTETXEA S. COOP

KUDEAKETA AURRERATUARI EUSKAL SARIA PERTSONETAN

- SAN FELIX IKASTOLA

OSASUNA

URREZKO A

- RED SALUD MENTAL BIZKAIA-OSAKIDETZA

KUDEAKETA AURRERATUARI EUSKAL SARIA ESTRATEGIAN

- MUTUALIA

HIRUGARREN GIZARTE SEKTOREA

KUDEAKETA AURRERATUARI EUSKAL SARIA BEZEROETAN

- GORABIDE

FINANTZAK ETA ASEGUROAK

KUDEAKETA AURRERATUARI EUSKAL SARIA BEZEROETAN

- IGUALATORIO MÉDICO QUIRÚRGICO S.A. DE SEGUROS Y REASEGUROS

pertsonak parte hartu zuten streaming hutsezko ekitaldian.

Lehendakariak ekitaldia itxi zuen, eta **Arantxa Tapia** Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen sailburuak; **Beatriz Artolazabal** Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako sailburuak; **Jokin Bildarratz** Hezkuntza sailburuak; **Gotzone Sagardui** Osasun sailburuak; **Pedro Azpiazu** Ekonomia eta Ogasun sailburuak, eta **Iñaki Arriola** Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio sailburuak eman zituzten sariak, EUSKALITeko presidente **José Luis Díaz** jaunarekin batera.

Aurten ere **Kudeaketa Aurreratuari diplomak** eman zitzaizkien 2020an Kanpo kontraste zerbitzua gainditu zuten sektore guztietako **42 erakunderi**.



BESTE GERTAERA GARRANTZITSU BATZUK

2020an, zazpigarren urtez jarraian, **Innobi-deak-Kudeabide programan** parte hartzen jarraitzen dugu, Eusko Jaurlaritzaren eta hiru foru-aldundiaren, SPRIren eta EUSKALITen arteko akordioari esker. Gainera, aurreko urteetan parte hartu duten enpresen hobekuntzan laguntzen jarraitu dugu, **900 enpresa** baino gehiago guztira.

Diagnostiko kopuru osoa (kontraste berriak, berritzeak eta eguneratzeak): **233**



Hainbat **sektore-programa** garatzen jarraitu dugu, guztiak online formatura egokituta:

- **Merkataritza** (Retail Euskal Eskola + bestelako aholkularitzak): **82** saltoki.
- **Kultura** (Ksi Berritzaile eta Egokitu programak): **65** erakunde.
- **Sektore publikoa** (Aurrerabide) eta Q-epea: **96** erakunde.
- **Hezkuntza** (Aurreraka + Tailerrak): **71** ikastetxe.
- **Kirolak** (3K): **79** kirol-erakunde.
- **Gizarte-zerbitzuak** (Binklusion): hiru-garren gizarte-sektoreko **36** erakunde.
- **Trafikoa** (Innovabide): **15** enpresa eta erakunde.
- **Hizkuntza-kudeaketa** (Bikain): sektore guztietako **18** erakunde.



BIDE-SEGURTASUNAREKIN BAT EGITEN DUTEN EUSKAL ENPRESEN SAREA
RED DE EMPRESAS VASCAS COMPROMETIDAS CON LA SEGURIDAD VIAL



EUSKADIKO KULTURA ETA SORMEN INDUSTRIARIK INDUSTRIAS CULTURALES Y CREATIVAS DE EUSKADI



Beste erakunde batzuei beren eragin soziala garatzen laguntzen jarraitu dugu **25 ekitaldiren** bidez, **115 pertsona langabetuei** lagundu diegu, eta **150 jarduera** baino gehiago egin ditugu gizarteari begira.



COIIB, Mondragon Unibertsitatea eta Sistepant-ekin elkarlanean jarraitu dugu, **4.0 Industrian kudeaketa eta ezarpen digitalerako workshop**ean.



2020KO JARDUEREN LABURPENA

DIFUSIOA


107 ekitaldi Jardunbide egokiei buruz sentsibilizatzeko eta informazioa trukatzeko

8.400 parte-hartzaile



31 Europar Asteko ekitaldi
2.700 parte-hartzaile

Kudeaketa Aurreratuaren Klubeko eta 5S Klubeko jardunbide egokien truke ekitaldiak



EKINTZA

+1.600 erakunde baino gehiago ekintza programetan

Innobideak Prestakuntza

+2000 lagun beren enpresetan metodologiak ezartzen

Innobideak Prestakuntza

682 parte-hartzaile

Praktina egokiak trukatzeko Talde Aurreratuak

115

hezkuntza, industria, osasuna, kirola eta zerbitzuen alorretako erakunde

5S kluba

89 erakunde
360 Parte-hartzaile



EBALUAZIOA

467 erakunde ebaluatu edo diagnostikatu dira

+2.500

lagunek hartu dute parte Ebaluazio klubetan



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

832



KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA

Teknologi Parkea, 206 A
48170 ZAMUDIO
T: 94 420 98 55
euskalit@euskalit.net

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE